

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Urte amaieratik aurrera ekografo bat izango duten zortzi osasun-zentroak aukeratu dira

Altsasu, Barañain, Cascante, Azkoien, Tafalla, Tuterako Ekialdea, Aurrarria eta Zizurrekoak dira

Ostirala, 2016.eko abuztuak 19

Osasun Departamentuko kontseilari Fernando Dominguezek Altsasuko osasun-zentroa bisitatu du berriki, Departamentuak urte honen amaieratik ekografiak egiteko aukeratuko zortzi zentroetako bat. Gainerakoak, Barañain, Cascante, Azkoien, Tafalla, Tuterako Ekialdea, Aurrarria eta Zizurrekoak dira.



Dominguez kontseilaria Altsasuko osasun-zentrorako egindako bisitan.

Neurri horrekin (zortzi ekografo erostea dakar, 135.520 euroko inbertsioa), Osasun Departamentuak lehen mailako arreta indartu nahi du profesionalen erabakiak hartzeko gaitasuna hobetuz eta pazienteen irisgarritasuna hobetuz.

Departamentu horrek emandako datuen arabera, ekain amaiera arte 8.704 ekografia egin ziren Nafarroako oinarritzko gune guztietan, iazko epe berean baino % 14 gehiago; urte horretan halako 7.611 mediku-azterketa egin ziren.

Prestakuntza-ikastaro bat egitea ere aurreikusi da, ondorengo helburuekin, besteak beste: familiako medikuek beharrezkoa den trebezia eskuratzea ekografia klinikoaren erabileran, eta jardunbide horren erabilera lehen mailako arretan pixkanaka zabalduko duen kultura bat sortzea; hala, ekografia batekin abdomen aldean eta gihar nahiz eskeletoan lesio ohikoenak identifikatu ahalko dira.

Osasun-zentroetako ekografia klinikoaren abantailak

Ekografia klinikoa azterketaren arazo zehatzerako da. Profesionalei tresna bat ematea da kontua eta, hari esker, barne-egiturak ikusi, neurtu eta ebaluatu daitezke, segurtasuna handituz eta erabakiak hartzeko gaitasuna hobetuz. Horrenbestez, pazienteek lehen mailako arretan izandako aurkikuntza ekografikoak baliau ahalko dituzte diagnostikoaren prozesua nahiz prozesu terapeutikoa bizkortzeko hala behar duten pazienteen kasuan.

Mendillorriko osasun-zentroan egindako azterketa pilotu baten

emaitzen arabera, lehen mailako arretan aztertzeko proba mota hori egiteari esker, profesionalen erabakitzeko gaitasuna areagotzen da, klinikoari diagnostikoak ezartzeko eta orientatzeko aukera ematen dio, ia berehala lortutako informazioan oinarritutako erabakiak hartzea errazten du, eta hala agintzen duten egoera klinikoetan arretarako epeak murrizten uzten.